EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## 2019KO ABENDUAREN 12KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

**1. Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako lege-proposamena, animalien babes eta ongizateari buruz. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\09\02\02\00038]**

Aintzat hartzea onetsi da.

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 12 DE DICIEMBRE DE 2019

**1. Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, de protección y bienestar de los animales. [11\09\02\02\00038]**

Aprobada la toma en consideración.

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

**2. Mozioa, Nerea Kortajarena Ibañez EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, EAEn gizarte-kohesioan ematen ari den atzerakadari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00158]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketaren bozketetan berdinketak izanda, hurrengo osoko bilkuran erabakiko da.

**2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Nerea Kortajarena Ibañez, parlamentaria del grupo EH Bildu, relativa al retroceso que se está dando en la CAV en la cohesión social. [11\11\03\00\00158]**

Producido empate en las votaciones de la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES, queda pendiente para una próxima sesión plenaria.

**3. Mozioa, Javier Ruiz de Arbulo Cerio Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Ertzaintzaren eraginkortasuna hobetzeko politikei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00157]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

37/2019

"Eusko Legebiltzarrak honako hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

1. 2020an, Segurtasun Sailak eta Lan eta Justizia Sailak beharrezko urratsak egin ditzaten Ertzaintzaren atestatuak Justizia Administrazioaren espediente elektronikoetan integratu ahal izateko.

2. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren bidez ikerketa-arloko prestakuntza-programak ezartzen jarraitzeko eskubidea, bai Ertzaintzaren oinarrizko eskalara sartzeko ikastaroetan, bai ikerketa kriminalean espezializatzeko ikastaroetan".

**3. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Javier Ruiz de Arbulo Cerio, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a políticas tendentes a mejorar la eficacia de la Ertzaintza. [11\11\03\00\00157]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

37/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. A que durante 2020 el Departamento de Seguridad y el Departamento de Trabajo y Justicia den los pasos necesarios para que los atestados de la Ertzaintza se puedan integrar en los expedientes electrónicos de la Administración de Justicia.

2. A seguir implementando a través de la Academia Vasca de Policía y Emergencias los programas formativos en materia de investigación, tanto en los cursos de acceso a la escala básica de la Ertzaintza como en los cursos de especialización en investigación criminal".

**4. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, ekonomia uberizatuak eta, zehazki, delivery sektoreko banaketa-enpresek (Glovo, Deliveroo, UberEats…) sortu eta sustatzen duten lanaren prekarizazioaren eta kontsumo-ohituretan duten eragin kaltegarrien aurrean hartu beharreko neurrien inguruan. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00649]**

EA-NV, EH Bildu, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

131/2019

"1. Eusko Legebiltzarrak bere aurkakotasuna adierazten dio azpiegitura birtualez baliatuz lantokiaren kontzeptu tradizionala desitxuratzen duten zenbait enpresari (Glovo, Deliveroo, Uber...), langile autonomoen erregimen berezian sartzea exijitzen zaien langileengana jotzen baitute, nahiz eta benetan duten harreman juridikoak besteren konturako lan-harreman bati propio dagozkion ezaugarriak betetzen dituen, modu honetan langileak prekarizatuz, lan-arloko enpresa-betebeharrak saihestera bideratutako iruzurrezko moduen bidez.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Lan Ikuskaritzari eskatzen dio eutsi diezaiola Estatuko Lan Ikuskaritzarekin duen elkarlanari Gizarte Segurantzako alten, bajen edo iruzurren alorrean egiten duen kontrolerako, helburu honekin: langileak autonomo faltsu gisa kontratatzen dituzten plataforma digital deiturikoak jazartzea eta zigortzea.

3. Eusko Legebiltzarrak Lan eta Justizia Sailari eskatzen dio jarraipen bereizia egin diezaiela Euskadin sortzen diren autonomo faltsuen egoerei, eta, horretarako, gogoan izan ditzala Lan Ikuskaritzaren eta foru-ogasunen artean dauden elkarlanerako akordioak eta hauek eguneratu ditzala eraginkortasuna handitzeko eta ekonomiaren digitalizazioak eta/edo uberizazioak sortutako lan-harremanen esparruan sortutako errealitate berriei erantzuteko, modu horretan enpresek beren zerga-betebeharrak eta Gizarte

**4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, en relación con las medidas que es necesario adoptar frente a la precarización laboral y las repercusiones negativas en los hábitos de consumo creadas y promovidas por la economía uberizada y, concretamente, por las empresas distribuidoras del sector delivery (Glovo, Deliveroo, UberEats…). [11\11\02\01\00649]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV, EH Bildu, EP y SV-ES.

131/2019

"1. El Parlamento Vasco manifiesta su oposición a aquellas empresas que, amparándose en infraestructuras virtuales (Glovo, Deliveroo, Uber,...), desdibujan el concepto tradicional de centro de trabajo, recurriendo a trabajadores y trabajadoras a las que les exigen encuadrarse en el régimen especial de trabajadores autónomos, cuando en realidad su relación jurídica reúne las características propias de una relación laboral por cuenta ajena, precarizando así a las y los trabajadores a través de formas fraudulentas destinadas a evitar las obligaciones empresariales en el ámbito laboral.

2. El Parlamento Vasco insta a la Inspección de Trabajo del Gobierno Vasco a que prosiga en colaboración con la Inspección de Trabajo del Estado en el control en materia de altas, bajas o fraudes en Seguridad Social, con el fin de perseguir y sancionar la contratación de trabajadoras y trabajadores como falsos autónomos por parte de estas empresas basadas en las llamadas plataformas digitales.

3. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Trabajo y Justicia a realizar un seguimiento específico a las situaciones de falsos autónomos que se produzcan en Euskadi, contando para ello con los acuerdos de colaboración existentes entre la Inspección de Trabajo y las haciendas forales y actualizándolos con el fin de aumentar su eficacia y dar respuesta a las nuevas realidades generadas en el ámbito de las relaciones laborales generadas por la digitalización y/o uberización de la

Segurantzarekikoak betetzen dituztela bermatzera lagunduz, batik bat dagozkien kotizazioekiko betebeharrak.

economía, ayudando también de ese modo a garantizar el cumplimiento por parte de las empresas de sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social, en particular con las obligaciones de las cotizaciones correspondientes.

4. Eusko Legebiltzarrak Lan Harremanen Kontseiluari eskatzen dio, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko 4/2012 Legean oinarrituz, ekonomiaren uberizazioa eta plataforma digitaletan oinarritutako enpresek sortzen duten lan-harreman eredu berriak modu zehatzean jaso ditzala bere txostenetan, eta horren inguruko azterlanak egin ditzala, eredu horrek Euskadin duen irismena aztertu eta zehaztuz, identifikatuz enpresak, sektoreak eta zenbat langilek egiten duten lan haietan, une honetan autonomo gisa dihardutenak barne.

4. El Parlamento Vasco insta al Consejo de Relaciones Laborales, al amparo de la Ley 4/2012, de Consejo de Relaciones Laborales, a informar detalladamente de la uberización de la economía y de los nuevos modelos de relaciones laborales creados por empresas basadas en plataformas digitales, y a realizar estudios que analicen y definan el alcance de este modelo en Euskadi, identificando las empresas, sectores y número de personas trabajadoras afectadas, incluidas quienes mantienen formalmente la figura de autónomo en estos momentos sobre dicha materia.

5. Eusko Legebiltzarrak dei egiten die erakunde eta administrazioei, beren eskumenen barruan, behar diren neurriak har ditzaten horrelako enpresetan lan egiten dutenen hainbat eskubide (askatasun sindikalerakoa, negoziazio kolektiborakoa, grebarakoa) eta halako enpresetan lan egiten dutenek langile gisa eduki behar dituzten bestelako oinarrizko eskubideak bermatzeko.

5. El Parlamento Vasco hace un llamamiento a instituciones y administraciones a que dentro de sus competencias adopten las medidas pertinentes para garantizar los derechos de libertad sindical, negociación colectiva, huelga y otros derechos esenciales que, como trabajadores, deben tener quienes trabajan en este tipo de empresas.

6. Eusko Legebiltzarrak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eskatzen dio jarrai dezala kontsumo arduratsuaren inguruko kanpainak egiten, pertsona kontsumitzaileek beren erosketetan irizpide sozialen eta ingurumenekoen arabera jokatzeko aukera izan dezaten, gizartearen onerako den inguru bati ekarpena egite aldera. Zentzu horretan eskatzen dio gazteei bereziki zuzendutako kanpaina bat diseinatu dezala *delivery* sektoreko banaketa enpresa horien atzean dauden alde negatiboez informatzeko, 2018-2020 Plan Estrategikoan jasotzen den kontsumo arduratsu eta etikoaren aldagaian oinarrituz. Gizarte kohesioa eta giza garapen orekatua izateko kontsumo usadio arduratsu eta iraunkorrak sustatzea ezinbestekoa delako, plan estrategikoan jasotzen den bezala, Nazio Batuen 2030 Agendaren 12. Helburuan, 'Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsua' izenekoan, oinarritzen baita".

6. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Turismo, Comercio y Consumo a continuar realizando campañas sobre consumo responsable, con el fin de que las personas consumidoras puedan guiarse en sus compras por criterios sociales y medioambientales con el objeto de contribuir a un entorno favorable para la sociedad. En este sentido le insta a diseñar una campaña dirigida especialmente a la juventud para informar sobre los aspectos negativos que se esconden tras el tipo de empresas de reparto del sector *delivery*, al amparo de la variable de consumo responsable y ético que se recoge en el Plan Estratégico 2018-2020. Porque, para alcanzar la cohesión social y un desarrollo humano equilibrado, es imprescindible impulsar hábitos de consumo responsable y sostenible, como se recoge en el plan estratégico que se sustenta en el objetivo 12 de la Agenda 2030 de Naciones Unidas, 'Producción y consumo responsables'".